

2009/10/09

Tren Museoaren 15. urteurrena dela-eta bost tren aterako dira bihar geltokitik

Trenaren Museoak hamabosgarren urteurrena ospatuko du bihar, larunbata. Hori dela eta, jardunaldi berezia antolatu da. Tren historikoen bost zirkulazio berezi programatu dira honako ordutegietan: 11:30ean, Aurrera lurrin lokomotorak eramango ditu lehen bidailariak Lasako geltokira. Nasmyth & Wilson-ek eraiki zuen 1898an eta 1960ra arte lanean aritu zen Elgoibar eta Donostia arteko trenbidean. Trenaren Euskal Museoak 1991n berreskuratu zuen.

12:30ean, Portugal lokomotaren txanda izango da. Alemaniako Henschel enpresak eraiki zuen 1913an, Portugal iparraldeko trenbide estuko lineatan lan egiteko, eta bertan aritu zen 1986ra arte. 1998an Portugalgo trenek Museoari eman zioten, eta bertan goitik behera zaharberritu zen handik bi urtera. Gaur egun, Estatuan funtzionatzen ari den trenbide estuko lurrin lokomotorarik indar-tsuen da.

13:15ean, Creusot/Naval 1158 ' diesel lokomotora zain izango da Azpeitiako geltokian. Maiatzean berriztatu zuen museoak lokomotora hau. Beste batzuen artean, Peñarroya-Puertollano, Zorno-tza/Amorebieta-Bermeo, Santander-Bilbo eta Valentziako trenetan eskaini zuen zerbitzua. Azken horretan amaitu zen bere bizitza aktiboa 1987an.

17:00etan, 120 urte baino gehiago dituen Zugaztieta lurrin lokomotorak eramandako bidaiarien tren baten zirkulazioa egingo da. Sharp Stewart enpresak (Glasgow, Eskozia) eraiki zuen 1888an, eta Zornotza/Amorebieta eta Gernika arteko linean eskaini zuen zerbitzua 1960ra arte. Trenaren Euskal Museoak berreskuratu zuen 1993an eta bi urte geroago berriro ere martxan jarri zuen.

Azkenik, 18:00etan, 1920an Krauss enpresa alemanak Compañía de Ferrocarriles Vascongados izenekoarentzat eraikitako Euzkadi lurrin lokomotorak bultzatako trenean ibiltzeko aukera izango da. Bilbo eta Donostia arteko linea elektrifikatu ondoren, Roblako trenbidean eskaini zuen zerbitzua eta, geroago, Ponferrada eta Villablino arteko trenbidean. 2000. urtean Azpeitiko Trenaren Euskal Museoak hartu zuen makina, eta 2002an goitik behera berriztatu zuen.

Tren historikoen zirkulazio horiez gain, egun osoan, Museoaren trenbide zabalgunean martxan egongo dira Grafton lurrin garabia (1920an eraikia eta Babcock & Wilcox lagatakoa) eta Bilboko U-52 eta Zaragozako 218

tranbia historikoak, zenbait diesel lokomotoraz gain. Igandean, urriak 11n, Trenaren Euskal Museoak lurrin trenaren beste zirkulazio bat eskainiko du, eguerdiko 12:30ean. Astelehenean, Museoaren instalazioak itxita egongo dira.